



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades e  
Investigación  
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 10ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021-2022 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2021eko uztailaren 13ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea (Ikerketa Espezifikoa), 2021-2022 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Bigarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2021eko uztailaren 13ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- 2021eko uztailaren 13ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) goitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 10ean.



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea